

**DUGUN KANTA** *Hitzak : Roger Idiart*  
**Dugun kanta Jainkoaren Bildotsari**  
**Bake-dohain egin dezan munduari.**

*Que l'Agneau de Dieu fasse au monde le don de la Paix !*  
1 - Jainkoaren izenean biltzen girenean,  
Bakea sor bedi gure artean.  
2 - Zuzenik ez den lekuan bakerik ez dago,  
Aldiz gerlak dira pizten maizago.

**O JESUS OGIAREN ITXURAN GORDEA**  
*Hitzak : Roger Idiart. Airea : Xarmegarria zira*

1 - O Jesus ogiaren itxuran gordea,  
Zure Hitzaren baitan dugu sinestea.  
Orori emaguzu elgar maitatzea,  
Hemen hartzen duguna bester emaita.

2 - Lur huntan maitasuna galtzen da errexki :  
Gerla baten pizteko, demendren bat aski ...  
Ahatik Berri Ona hor baita uruski,  
Mezua izan bedi entzunik leialki.

3 - Bazko aintzin bildurik ortzegunarekin,  
Afaltzen ari zinen zure lagunekin.  
Heien oinak xukatuz oihal txar batekin,  
Zonbat hunki gaitutzun egintza horrekin !

4 - Nagusia zen mintzo bere mutilari :  
« Zu ere ni bezala izan zerbitzari ».  
Gauden so gau hartako azken emaitzari,  
Indar guziz lotzeko Jaunaren Hitzari.

5 - Artzain ona, zuri gaur guk egin galdea :  
Norat ari ote da zure artaldea ?  
Uztaren biltzalerik agertuko dea ?  
Otoi susta ezazu fededun gaztea !

6 - Jesus, gurekin zaude, arkaitza iduri,  
Gu denentzat baituzu odola ixuri.  
Egizu sor ditezen zonbeit artzain berri,  
Ogiaren hausteko zure orroitgarri.



**ZERU LURRAK L 14**  
*Hitz et'aire : Roger Idiart.*  
**Zeru lurra zoin diren ederrak !**  
**Jainko Jauna, guk zuri eskerrak ! (bis)**

*La terre et le ciel sont si beaux :  
Seigneur Dieu, nous te rendons grâce !*  
1 - Gauak bai eta egunak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
Mendiak eta zelaiak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
*Dieu a créé le jour et la nuit, les montagnes et les champs.*  
2 - Errekak eta ibaiak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
Itsasoaren uhainak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
*Dieu a créé les rivières, les fleuves et les vagues de l'océan.*  
3 - Landare mota guziak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
Arrainak eta xoriak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
*Dieu a créé les plantes, les poissons et les oiseaux.*  
4 - Abere mota guziak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
Jende arraza guziak  
*Jainkoak ditu eginak.*  
*Dieu a créé les animaux et les hommes de toutes races.*

**INGERU BATEK MARIARI** *Angélus*

*Airea : Roger Idiart « Orhiko xoria ».*

1 - Ingeru batek Mariari  
Dio graziaz betea  
Jaungoikoaren Semeari  
emanen diozu sortzea.  
**Agur, agur Mariari,**  
**Zeruko Ama onari ! (bis)**  
2 - Jainkoaren nahi saildua  
Ni-baitan dadin egina  
Izan nadien amatua  
bainan geldituz Birjina.  
3- *Orduan Berbo Dibinoa*  
*Gorputz batez da beztitzen*  
*Oi, ontasun egiazkoa :*  
*Jauna gurekin egoiten.*  
4 - Otoi zazu zure Semea  
gure Ama amultsua  
Izan dezagun fagorea  
ardiesteko zerua.



LAPURDIKO SAN MIXEL GARIKOITZ PARROPIA  
PAROISSE SAINT MICHEL GARICOÏTS DU LABOURD

✠ AINHOA ✠

2019. Buruilaren 1a – Urteko 22. Igandea C

**ROGER IDIART APEZAREN OMENEZ**

**AINTZA ZURI JAUNA A 67** *Hitz et'aire : Roger Idiart.*

**Aintza zuri Jauna,**  
**Zeru lurretan zaudena ! (bis)**

*Gloire à toi, Seigneur, sur la terre et dans les cieux.*  
1 - Agur gorespen zuri Jaun Goiko Aitari  
Zerukoak iduri, gu hemen kantari.  
*Gloire à toi, notre Père, Dieu très haut.  
Nous unissons nos louanges aux voix du ciel.*  
2 - Gorespen zuri ere, Jainkoaren Seme,  
Ahaltsu bezain xume, Jaun eta langile.  
*Gloire à toi, Fils de Dieu, puissant et humble serviteur.*  
3 - Izpiritu Saindua, guziz amultsua,  
Bero zazu mundua, heda zure sua.  
*Esprit Saint, tendresse de Dieu,  
réchauffe l'humanité au feu de ton amour.*



*Argazkia : Euskal Kultur Erakundea - Zaldiero*

**BEKATUEN URRIKIA** *Préparation pénitentielle : Toi notre Sauveur, prends pitié de nous !*

Munduaren deiak entzun, otoi, gu ganat beha :

**Urrikal Jauna, urrikal Jauna ! (bis)**

Zu gure Salbatzailea :

**Urrikal Jauna, urrikal Jauna ! (bis)**

Lur guzirat gu bidez heda fedea :

**Urrikal Jauna, urrikal Jauna, urrikal Jauna ! (bis)**

*Gloria : Aintza zeruan, aintza zeruan, aintza zeruan Jaunari !*  
**Eta bakea, eta bakea lurrean gizoneri ! (bis)**

Eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri,  
Hain haundi ta eder zaitugulakotz gora Zu, benedikatua Zu,  
Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri,  
Jainko Jauna, zeruko Errege, Jaungoiko Aita, guziahalduna.

**Aintza zeruan...**

Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme,  
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, urrikal Jauna.  
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, entzun gure deia,  
Aitaren eskuin-aldean jarririk zaude Zu, urrikal Jauna.

**Aintza zeruan...**

Zu bakarrik Saindua,  
Zu bakarrik Jau-na,  
Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Izpiritu Sainduarekin,  
Jainko Aitaren argitan, Amen. **Aintza zeruan...**



### Lecture du livre de Ben Sira le Sage 3,17-18.20.28-29

Mon fils, accomplis toute chose dans l'humilité, et tu seras aimé plus qu'un bienfaiteur. Plus tu es grand, plus il faut t'abaisser : tu trouveras grâce devant le Seigneur. Grande est la puissance du Seigneur, et les humbles lui rendent gloire. La condition de l'orgueilleux est sans remède, car la racine du mal est en lui. Qui est sensé médite les maximes de la sagesse ; l'idéal du sage, c'est une oreille qui écoute. – Parole du Seigneur.

### PSAUME 67. SALMOA

**Bai goretsia Jainko Jauna :  
apalak ditu goraltxatu !**

*Béni soit le Seigneur : il élève les humbles.*

Gizon zuzenek Jainkoari so jauzi kantu :  
Bozaren bozez Jaunari zaizko dantzan bildu.  
Kanta Jaunari, hura baitoa zeruz zeru :  
Pitz eta kanta, haren izena Jauna baita.

*Les justes sont en fête, ils exultent ; devant la face de Dieu ils dansent de joie.*

Umezurtzekin begiratzen du alarguna :  
Horra zer zaikun bere egoitzan ari Jauna.  
Deika denari emaiten dio zoriona ;  
Suzko lurrean uzten, haatik, aher dena.

*A l'isolé, Dieu accorde une maison ; aux captifs, il rend la liberté.*

Ixuri duzu zure haurreri on-iturri,  
Heien indarrak, indar galduak, diton berri.  
Zure jendeak egoitza zuen hortxet jarri,  
Zuk apaindurik hoin maite duzun zure hori.

*Sur les lieux où campait ton troupeau, tu le soutenais,  
Dieu qui es bon pour le pauvre.*

### ALLELUIA !

**Ohore Jainko Aitari,  
Mariak sortu Haurrari,  
Izpiritu Sainduari,  
Alleluia, alleluia !**



### Évangile de Jésus Christ selon saint Luc 14,1.7-14

Un jour de sabbat, Jésus était entré dans la maison d'un chef des pharisiens pour y prendre son repas, et ces derniers l'observaient. Jésus dit une parabole aux invités lorsqu'il remarqua comment ils choisissaient les premières places, et il leur dit : « Quand quelqu'un t'invite à des noces, ne va pas t'installer à la première place, de peur qu'il ait invité un autre plus considéré que toi. Alors, celui qui vous a invités, toi et lui, viendra te dire : "Cède-lui ta place" ; et, à ce moment, tu iras, plein de honte, prendre la dernière place. Au contraire, quand tu es invité, va te mettre à la dernière place. Alors, quand viendra celui qui t'a invité, il te dira : "Mon ami, avance plus haut", et ce sera pour toi un honneur aux yeux de tous ceux qui seront à la table avec toi. En effet, quiconque s'élève sera abaissé ; qui s'abaisse sera élevé. » Jésus disait aussi à celui qui l'avait invité : « Quand tu donnes un déjeuner ou un dîner, n'invite pas tes amis, ni tes frères, ni tes parents, ni de riches voisins ; sinon, eux aussi te rendraient l'invitation et ce serait pour toi un don en retour. Au contraire, quand tu donnes une réception, invite des pauvres, des estropiés, des boiteux, des aveugles ; heureux seras-tu, parce qu'ils n'ont rien à te donner en retour : cela te sera rendu à la résurrection des justes. »

### Lecture de la lettre aux Hébreux 12,18-19.22-24a

Frères, quand vous êtes venus vers Dieu, vous n'êtes pas venus vers une réalité palpable, embrasée par le feu, comme la montagne du Sinaï : pas d'obscurité, de ténèbres ni d'ouragan, pas de son de trompettes ni de paroles prononcées par cette voix que les fils d'Israël demandèrent à ne plus entendre. Mais vous êtes venus vers la montagne de Sion et vers la ville du Dieu vivant, la Jérusalem céleste, vers des myriades d'anges en fête et vers l'assemblée des premiers-nés dont les noms sont inscrits dans les cieus. Vous êtes venus vers Dieu, le juge de tous, et vers les esprits des justes amenés à la perfection. Vous êtes venus vers Jésus, le médiateur d'une alliance nouvelle. – Parole du Seigneur.

### BERRI ONA KANTUZ L'ÉVANGILE EN CHANTANT

*Hitzak: Roger Idiart. Aireia : Ignace Etchehandy.*

*Luk 14,1.7-14 : « Tu seras heureux parce qu'ils n'ont rien à te rendre. »*

**« Emazu dohaina,  
hartu gabe ordaina. » (bis)**

1 - « Gomita pobreak, maingu, itsuak,  
Deus ez duteneri zabal eskuak. »  
2 - « Handi nahiari azken alxia ;  
Apal dagonari lehen tokia. »



### SINESTEN DUT JAUNA *Hitz et'aire : Roger Idiart.*

**Sinesten dut Jauna, sinesten dut Jauna !**

1 - Jaungoiko bat bakararra, Aita guziz ahaltzu, zeru-lurren Egile.  
2 - Jaun bakar Jesu Kristo, Jainko gizon egina, hiletarik piztua.  
3 - Izpiritu Saindua, Jaun bizi emalea, gure sustatzailea.  
4 - Sinesten dut Eliza, Saindu Katolikoa, et'Apostoluena.  
5 - Sinesten dut naizela, hiletarik piztuko, Jaunarekin biziko.

Fededunen otoitza : **Jauna orroit zaite zoin gaitutzun maite !** (bis) *airea : R.Idiart.*

### AITA GUZIZ ONA B 25 *Hitz et'aire : Roger Idiart.*

**Aita guziz ona Zu jaunen Jauna,  
Zabalik daukazu zeru gain-gaina.  
Guretzat ezarri duzu mahaina :  
Zoin den hunkigarri zure dohaina !**

*Père très bon, pour nous, tu dresses la table ...*

1 - Ogiaren itxuran Jesus dut hartuko  
Harek bainau betiko bizian sartuko.  
*Avec le pain de la vie éternelle ...*  
2 - Lurrak ondu mahatsak arnoa dario ...  
Odol sainduak dio emaiten balio ...  
*Avec le vin, fruit de la terre et de la vigne ...*



**Saindu, saindua, gure Jainko Jauna ! A.61  
Hozanna ! Hozanna zeru goretan !**

1 - Zeru lurrak beterik dauzka zure distirak !  
2 - Benedikatua izan bedi Jaunaren izenean datorrena !

### KRISTO BIZIRIK ZAUDE ! 33

**Kristo bizirik zaude  
Nausi mendez mende.**

Kristo guretzat hila, guretzat emana  
Horra hor zaitugula osperrat igana  
Erran bezala, Kristo, berriz ere zato.

*Doxologie : Hunen bitartez C.42*

**AMEN ! A- MEN !**

**AGUR AINTZA JAINKOARI ! (bis)**

*Jaunaren Otoitza. Aireia : Roger Idiart.*

**Gure Aita zeruetan zirena  
Saindu izan bedi zure izena  
Etor bedi zure erreinua  
Egin bedi zure nahia  
Zeruan bezala lurrean ere  
Emaguzu gaur egun huntako ogia  
Barkatu gure zorrak  
Guk ere gure zorduner  
Barkatzen diegunaz geroz  
Eta ez gu tentaldirat ereman  
Bainan atera gaitzazu gaitzetik.**

**« Zu ere ni bezala  
izan zerbitzari ».**